

atezaina

MIREN AGUR MEABE

E
l
k
a
r
r
I
r
a
k
u
r
r
i
z



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MIREN AGUR MEABE

atezaina

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

Denboraldiak: 4

Atalak: 20 (50')

Protagonistaren aurkezpena:

Agurtzane Olea atezaina da Bilboko ikastetxe publiko batean. Bere obsesioa beti izan dira ateak eta giltzak. 2025ean, Irati Berazaren kasua —Artxanda mendian bortxaz hilda agertutako ikasle baten kasua— argitu zuen. Lanbideak ematen dion posizioak justifikatzen du bere ikerlari profila. Basoan eraikitako etxe batean bizi da, Mau txakurraren eta Margarita ahuntzaren konpainian, eta baratzeko limoiondo batean ditu gordeta Amaia ahizparen errautsak. Amorante bat dauka, frantsesa, Victor. Lagun mina, Edurne. Agurtzaneren zaletasunak honako hauek dira: mendia, brikolajea, opera eta rocka. Halaber, ardoak dastatzea, irakurtzea eta idaztea.

1. DENBORALDIA – ABIAPUNTUAK

AFORISMOA. Agurtzaneri ez zaio oraindik ahaztu giltzatxoaren zapore metalikoa. Letoizkoa zen, koskatua. Bere intimitatea babesteko irentsi zuen. Agurtzanerentzat, koaderno hura lubaki bat zen, gaztelu bat, katedral bat. Hamahiru urte zituen ikaskideek kendu ziotenean. Berak ahoan gorde zuen giltzatxoa, baina, atezuan, irentsi egin zuen.

Edurnek dena ikusi zuen. Ostikoka hasi zitzaien denei. Amazona bat zen, errepikatzailea. “Hobe da giltza bat behin irentsea beldurra egunero jatea baino” esan zion Agurtzaneri. Halaxe egin ziren lagun.

Horixe gogoratzen ari da Agurtzane bere garitan, Mallonaberri BHIko patioan negarrez dagoen mutil bati begira...

ROCHESTER JAUNAREN ETXEAN. Agurtzane XIX. mendeko Ingalaterrara joan da ametsetan. Dosel eta guztiko ohe batean datza, tertziopelozko gortinen artean. Barre-karkara lazgarri batek iratzarri du. Ganderailua hartu eta korridorera atera da. Itzalen artean, Mrs. Fairfax bereizi du, Thornfield Hall-eko giltzazaina.

Isilka jarraituko dio hirugarren solairuko gela bateraino. Ate ertzetik, Agurtzanek kuku egingo du barrura. Emakume bat dago barruan, kamisoia zikin, tximak solte, eskuak horman lotuta: Amaia.

Agurtzane bihotza punpaka esnatu da. Distraltzeko, bere podcast gogokoena entzuten jarri da: *Criminal Party*. Esataria G. A.ren kasuaz ari da.

G.A., 10 urtekoa, Bardeetan desagertu zen 2021ean, ikastolakoekin egindako txango batean. Foruzaingoak urtebete geroago aurkitu zuen kobazulo batean, auzoko batek bahituta. Jasotako sexu-abusuen ondorioz, G.A.k tratamendu psikiatrikoa jaso behar izan zuen.

HITZORDU ARRISKUTSU BAT. Tinderren ezagutu dute elkar. Biluzik daude. Gizonak ilea altxatu dio Christa izeneko emakumeari lepoa musukatzeko. Orduan, gogortasun bat sumatu dio, plastikozko plaka baten moduko zerbait. “Nire giltza magnetikoa da” diotso Christak irriño batekin, “sakatu beldurrik gabe”. Esan eta batera, gas-turrusta bi askatu ditu sudur-zuloetatik

gizonaren aurpegira. Gizona itotzen ari da, Erreplikanteak salto egin du leihotik eta La Merced zubirantz egin du lasterka.

Hortik hiru egunetara, Agurtzanek Josu Cantera ertzainburuaren deia jasoko du. “Kontxo, Hurbitzaile! Aspaldiko!”. Josu Canteraren ahotsak benetako kezka adierazten du: “Gizon baten gorpua agertu da Erribera kaleko pentsio batean. Birus arraro bat zeukan. Gure ekipoko hiru kide kutsatu ditu eta hilzorian daude”. Agurtzanek hazka egingo du buruan: “Eta zer zerikusi daukat nik horretan?”. Hurbiltzaileak eztultxo bat egingo du erantzun orduko: “Gizonak zure zenbakia zeukan telefonoan”.

BRUCE ETA POZOIA. Agurtzanek aperitibora gonbidatu ditu lankideak *Amorante frantsesa* liburuaren arrakasta ospatzeko. Hedabideetan kritika bakar bat azaldu ez bada ere, 60.000 ale saldu dira sei hilabeteen. Agurtzane seriooki ari da planteatzen lana uztea idazletzara dedikatzeko.

Lankideek, detailea eskertzeko, Bruce Springsteen-en kontzertu baterako sarrera oparitu diote. Agurtzanek txupa beltza, leopardo-minigona eta botin takoidun berriak erosiko ditu arratsalde horretan bertan.

Gero, etxera helduta, eguerdian sobera geratutako pastelxoetako bat jango du. Bat-batean, ikusmena lausotuko zaio eta botaka hasiko da. “Nork dit honenbesteko inbidia? pentsatu du komunean jausi eta konortea galdu orduko...”

GOLUM? Ilargiak logela argitzen du. Mesanotxean bi ardo kopa daude, erdizka edanda. Gorputz izerdituek urrez ziprztinduta legez egiten dute diz-diz. Agurtzanek begiak ireki ditu. Itzal bat dabil sabaian herrestaka, kreatura bat lau-hankan, Golum gogorarazten diona. Gaur ere ez du izan orgasmorik.

Leihora inguratu da. Udazkeneko haizeak orbela darabil. Hontzaren ulua adituko da.

Kanpoan dago Mau ere, ilargiari begira, Irati Berazaren eskuetatik Agurtzaneren eskuetara pasatutako txakurra. “Zer gertatzen zaigu, Mau?” egingo du hasperen.

Victorrek zerbait marmarikatuko du lotan, Agurtzanek honela interpretatuko duena: “Kontua ez da hori, ondo dakizu”.

2. DENBORALDIA – ABIAPUNTUAK

NON DAGO SNOOPY? Ostiral arratsaldea. Agurtzane, lanetik atera berri, Etxebarria parkea zeharkatzen ari da Zazpikaleetara jaisteko. Bere adin bueltako andre bat garrasika ari da: “Nire iloba! Ilobatxoa lapurtu didate!”. Nekez hartzen du arnasa. “Markel, hiru urte, txamarra gorria, Snoopyren irudia. Paperontzira joan naiz jogurt potea botatzera eta buelta hartu dudanerako ez zegoen kotxetxoan”.

Andreari mukia dario, Zumalakarregi etorbidean burrunbaka doaz autoak. Baliteke haurra horietako batean egotea.

Organo-trafikoa? Pedofilia? Haurrik gabeko bikote baten ekintza desesperatua?

OSPA, OSPA, HIJA DE... Agurtzane erosketak egiten supermerkatuan. Txarkuteriako ilaran, bi gizonezko daude pateak seinalatzen, agure bat eta semea, biak flanelazko alkandora koadrodunak soinean, Daniel Boone senior and junior. Disimuluz, Agurtzanek bere orgatxoari bultz egin dio ospa egiteko.

Agurearen ahotsa entzungo du atzetan: “Bai, ospa, ospa, hija de...”. Lasterketan, Agurtzanek turroien mostradorea botako du lurrera.

MOMIA. Arratsaldeko zapietan dauka ordua hortz-klinikan. Harantz doala, Agurtzaneri arreta eman dio errotulu batek Zabalbide kaleko entreplanta batean: GILTZA ARGITALETXEA. Ezaguna zaio, ikasliburuen enpresa bat zen porrot egin orduko. Saltzailea sarritan azaltzen zen institututik. Lokaleko kristalak zikin-zikin daude.

Agurtzanek erakarpen morbosoa sentitzen du. Bizilagun bat irteten ari dela aprobetxatuz, atarian sartuko da. Argitaletxearen atera inguratuta, poltsikoan daraman giltza berezia aterako du, edozein sarraila zabaltzeko balio duena. Erraz irekiko du.

Kañeria usaina hain da gogorra, ahora eramango du eskua. Flexo baten argia sumatzen da bulego batean. Agurtzaneren zapata-zolak parketeko hautsean grabatuta geratuko dira bulegora hurbildu ahala. Oso-oso-oso ikaratuta dago.

Andre bat dago idazmahaian eserita, momifikatuta. Ile gorria, betaurrekoak, trajea. Zerbait utzi zuen idatzita. Agurtzanek telefonoaren linternarekin argituko du folioa: “Amodio koldarretatik ihesi nabil (MAM)”. Bihotzak krak-krak-krak egingo dio.

MARGARITAK EZ DAUKA ERRURIK. Agurtzaneri dar-dar egingo dio ahotsak al baitariari deitzean. Hura etortzeko zain dagoen bitartean, atzeko terrazan zabaldutako odol-putzua garbituko du. Amoniakoaren usainak euforia puntu absurdu bat eragingo dio.

Margarita ahuntza zinkurinka ari da lurrean etzanda. Muturra odolduta dauka: mihia moztu diote artazkiekin.

“Margaritanelken” diotso Agurtzanek hipaka, “nola emango dituzu orain zure mitinak?”.

Mauk mantatxo bat ekarriko du etxetik terrazaraino.

ISILPEKO MAITASUNA. Agurtzane Londres hoteleko kafetegian dago ardo kopa bat hartzen. Hitzordua jarri du Victorrekin argazki bat eskatu nahi baitio hurrengo liburuaren azala egiteko. Biak ezagutu ditu, eguzkitako betaurreko beltzak eta kapelak jantzita eduki arren. “Gora zu, Rob!” dio Agurtzanek bere kolkorako. Kontxako pasealekuan, Gabonetako argien azpian, Roberto Berazak —I.B.ren Aita Gardenak— sorbaldatik eutsita darama Rebeka Bergaretxe diputatua. Bergaretxe inputaturik dago Guggenheim Urdaibai proiektuko txosten teknikoak faltsutzeagatik eta iruzurrezko komisiok ordaintzeagatik.

3. DENBORALDIA – ABIAPUNTUAK

MUKI BERDEXKA. Agurtzanek negar-zotinak entzun ditu institutuko 2. solairuko komunetan. Neska bi zurrumurruka ari dira. Ondorioztatu duenez, pornografia filmatzen duen sare batean harrapatuta daude. Ibarrekolandako lonja batean egiten dituzte laburmetraiak eta, saioen ordain, anfetaminak jasotzen dituzte. Nesketako batek esan dio besteari: “Ikusi nire kuleroak, muki berdea botatzen ari naiz”. Bigarren neskak bere osaba aipatu du.

HAU EZ DA TEXAS, BAINA... Aperribaiko gasolindegia, familia-enpresa bat paraje industrial batean. Hortxe galdu zuen arima Amaiak, kontrolpetik egin zion ihes buruko gaixotasunak. Depositoa betetzean, Agurtzanek sakon hartzen du arnasa: gasolioak oroitzapenak kauterizatzen dizkio.

Betiko mutilaren ordeztu beste bat dago, hala ere, oso ezagun duen ikasle ohi bat, El Konkis. “Luken Ituño! Zer egiten duzu hemen!” galdetu dio. “Laguntzen... Sos batzuk behar ditut karrera ordaintzeko, Zuzenbidea. Atzo lapurrak sartu ziren, lau tipo, aurpegiak galtzerdiekin tapatuta. Genero guztia eraman zuten. Eta 2000 euro inguru. Txarrena, jabeak ospitalean amaitu zuela, sustoagatik. Hau ez da Texas, baina...”.

Une horretan, Agurtzanek zerbait ikusiko du zaborrontziaren azpian erdi zapalduta. Makurtu egingo da hartzeko. Diskoteka bateko txartela da.

Geroago, etxera helduta, limonondoan jarritako txori-etxera gerturatuko da zuloatik begiratzeko.

PORLANA? POLENA? Agurtzane presarantz doa Maurekin. Bidean, Mikelekin topo egin dute, irakaslea eta poeta, Gizon Kaladuna, kala bat serigrafiatuarik daukan kamiseta bat erabiltzen duelako. Gaur pomerania bat atera du txakurtegitik. Txakurrak azeri-aurpegitxo kutuna dauka, baina histeriko hutsa da. “Tira, Atila... Zergatik hainbeste zaunka...?” galdetu dio laztan bat eginez. Agurtzane eta Gizon Kaladuna apur batean berbetan egon eta aldendu egin dira.

Geroxeago, Agurtzanek garrasi egingo dio motero bati: “Hau ez da zirkuitu bat, ostia”. Motoaren burrunba mendian gora aienatuko da.

Barianteko obrak aspaldi amaitu zituzten, baina ez dute garbiketarik egin: plastikoak, burdinak eta zakuak daude sakabanatuta..“Adreilu batzuk hartu eta erretura egiteko hesitxo bat eraikitzeke aprobetxatu ahal nituzke” pentsatu du Agurtzanek.

Udaberriko euriek putzuak utzi dituzte bidexkan. Mauk putzu batetik edango du. Hortik segituan, zoratu egingo da. Agurtzane ohartuko da uretan hauts zurixka batzuk daudela. agian porlana, agian polena.

Ala droga ote da zaku horietan gordeta dagoena?

BIHOZKADAK. Agurtzanek burua estali du almohadarekin, ahotsa ez entzuteko, Ahots zorrotza da, ezpal baten antzekoa: “Topa nazazu, mesedez. Topa nazazu, mesedez. Topa nazazu, mesedez”.

Agurtzanek amesgaiztoak izaten ditu arriskuan dauden neskekin. Irati Berazaren pasadizoak utzitako oparia da hori.

Mauk salto egingo dio ohera, masaila miazkatuko dio, kolpetxoak emango dizkio saihetsean muturrarekin.

NORMANDIAKO ERLOJUA. Bordeleko Saint André auzoa. Brocante batean, Agurtzanek eta Victorrek begia jo diote antigoaleko erloju bati: zur landuzko kaxa, alabastrozko esfera, zenbaki erromatarrak. “Normadianko etxe batetik ekarritakoa da” azaldu die saltzaileak.

Victorren apartamentura heldu direnean, tximinia gainean jarri dute pieza. Tik-tak ozena egiten du, ozenegia, bai Agurtzane bai Victor isiltasun zaleak direlako. Deskuidu batean, Victorrek ukondoarekin bultzatu, eta erlojua ziplo erori da.

Paper horixka bat dago esparatrapuz itsatsita esferaren atzealdean, eskuz idatzitako orri zimur bat. Ematen du lehenbizi mespretxatu eta ondoren salbatu egin zutela. Bien artean leitu dute.

Data, Rouen, le 5 février 1959

Gutun bat da, neska batek gurasoei zuzendua. Galdetzen die ea zelan doan ostatua. Unibertsitatean gustura ari dela diotse. Besteak beste, De Gaulle aipatzen du, Frantziako presidente hautatu berria, eta baita horren harira sortu zaion oroitzapen bat ere:

“Gerra bukatu berri zen. Ikuskizun batera joan nintzen zuekin. Aire zabalean geunden, amerikanoen kanpamentuan beharbada. Kutxa handi bat zegoen oholtzan; barruan, emakume bat. Hainbat gizon, pika luzeekin, kutxa zulatzen hasi ziren. Amaigabea egin zitzaidan: haurtzaroan, izuak ez du amaierarik. Azkenean, emakumea osorik atera zen kutxatik, eta eskerrak”.

Pasadizo biografiko bat da. Florilegiorik gabeko aitorpen bat da. Intimitatea eta historia fusionatzen dituen gogoeta bat da.

Ezin dute burutik kendu ez tonua, ezta sinadura ere. Jakin-minak kinatuta, Google-n tekleatu dute izena: Annie Thérèse Duchesne.

Idazle handi baten dokumentu erreal bat daukate eskuetan, ospetsu bilakatu baino zatia lehenagokoa.

4. DENBORALDIA – ABIAPUNTUAK

THE MAGIC OWL. Selektibitatearen ondoren, Mallonaberriko ikasleak ikasbidaian abiatu dira Ibizara. “Ostatu kutre samar bat hartu dugu, Agur, baina ez du inporta. Parrandara goaz!” esan diote.

Agurtzaneren gomendioz, *The Magic Owl* pubera joango dira, ikasle ohi bat bertan baitabil lanean: “Neska jatorra da. Ilusioa egingo dio zuen bisitak. Eta eraman pakete hau nire partez... Liburuak dira, euskaraz”.

Ikasleak liburuak entregatzera joan direnean, barran galdetu dute: “Laia Lopez?”. Ilea berdez tindatuta daukan kamarero batek erantzun die: “Laia? Ideiarik ez. Ez da etorri herenegunetik. Gozo dauka jefea”.

AITA ON BAT. Familia tanatorioaren kanpoaldean dago bilduta. Eguzkiak argitutako horman, senideen itzalak islatzen dira. Bakarrik utzi dute hilotza aretoan, lore sortaz inguratutik. “Sentitzen dut” diotso Agurtzanek Laurari. Kostata hurbildu zaio, aspaldian hoztu baitziren. “Ez sentitu. Aita kabroi hutsa zen” erantzun dio Laurak.

Ideia batek oinaztuak bezala zeharkatu du Agurtzaneren burua, ea zaharra benetan jausi ote den txaleteko eskaileretan ala baten batek bultzatu ote duen.

Ematen du iritsi dela ordua kontu batzuei giltza emateko. Agian Lady Laura eta bera gai izango dira beren arteko harremana onbideratzeko?

Horretan-honetan, gizon bat atera da tanatoriotik, jarleku gurpildunean. Agurtzanek ez du ezagutu hasieran, sudur zati bat eta goiko ezpaina falta zaizkiolako, baita belarriak ere. “Ezin zaio protesirik jarri, materialak alergia egiten dio” justifikatu du Laurak senarraren itxura.

Arkitektoak Agurtzaneri erreparatu dionean, min-keinua egin du, ezker besoari heldu dio, indarrez itxi ditu begiak, ahoa zabaldu.

SAN PEDROREN KEINUA. Irati Berazaren tragediak Agurtzaneri utzitako gauza onetako bat haren amaren adiskidetasuna da. Tarteka, Eba Namaste yoga-irakasleak masaje aiurbedikoak ematen dizkio eta planen bat ere egiten dute.

Ekainaren 29an egun-pasa joan dira Lekeitiora. “Ez da ideia ona izan” diotso Agurtzanek, aparkatzeko tokirik topatu ezin dutelako ernegatuta. “Mereziko du, mereziko du” lasaitu nahi du Ebak.

Txistulariak. Kanpai-hotsa. Bolanderak.

San Pedro dakarte prozesioan porturantz, urrezko giltzak eskuan. Agurtzanek bihotz-zimikoa izan du santuak keinu egin diola iruditu zaiolako. Agurtzanek irrintzi bat bota du bertaratutako guztiei ileak zut jarri dizkiena.

Bueltan, Namastek esan dio bestelako energia bat nabari diola, aureola askoz argiagoa daukala bere santu patroia ikusi eta gero.

Gauean, Agurtzanek amets xelebrea izango du: Baionako festetan hiriko giltzak udaletxetik jaurtitzen dituzten bezala, San Pedrok Agurtzaneri jaurtiko dizkio bereak. Ez daki zer pentsatu: abisu bat ote da, zerua laster zabalduko zaiola? Akaso heriotza dabilkio inguru-minguru?

IDATZI, IDATZI, BABY. Agurtzane furgoneta gidatzen ari da Trebiño aldean *Sempre libera* kantatuz Traviata-ko Violetak baino ozenago. Mau darama kopilotu: artistentzako egoitza horretan onartzen dituzte txakurrak. Astebete daukate aurretik eta irrikaz dago nobela berria garatzeko. Argumentu sorta bat darabil gogoan.

Egoitzaren harreran, bere txabolaren zenbakia eta afalordua jakinarazi dizkiote, 20:30ak puntuan, taldean, jantokian.

Poltsa utzi eta lanean jardun du puska batean. Ondoren, paseo bat egitera irten da.

Kilkerrak. Belar metak. Hodeiak.

Bat-batean, Mau braust geratu, eta iraulitako lur tontor bati orroka hasiko zaio. Agurtzaneri kostatu egingo zaio ikusten diharduena sinistea: garezur bat dago lurretik erdi agerian, eta garbi ikusten zaio bala-zuloa. Oso-oso aspaldiko garezurra ematen du.

EZ DAGO GAUZEN ZERGATIA JAKITERIK. Agurtzane goiz esnatu da. Basoak ere aharrausika dirudi, poliki-poliki esnatzen. “Zuon falta daukat” dio, malenkoniatsu, *Solitude*-ko kristaleran.

Adar hautsien hotsa sumatu du eta orkatz bat begitandu zaio sastraken artean. Agurtzanek bere bizitzaren misterio orokorraz galdetu dio bere buruari, baita bizitzako misterio orokorre ere..

Laster bideratu du pentsamendua gauza praktikoetara: zer menu prestatu, zer ardo-botila zabaldu, zer musika ipini, Gaur bere urtebetetzea da.

Atea zabaltzean, kaxa polit bat topatuko du felpudoan, Victorren ohar batekin: “Kutxa hau nire bihotza da. Giltza zeu zara”.

Nork piztu du barbakoa?. Kea olgetan dabil xomorroekin, txoriekin, kimuekin.